


Astekaria

BARREN

elgoi



Mazzantini
toreatzaile elgoibartarra



LARRAÑAGA autoeskola



Santa Ana, 11. Tel: 74 10 11 Elgoibar

PREMAZKO TELEFONOAK

OSASUNA

Anbulategia: Larrialdiak	741155
Txanda hartzeko.....	743354
Alkoholiko Anonimoak	740385
D.Y.A (anbulantzia).....	464622
Gurutze Gorria	743864
Mendaroko Ospitala.....	756264
Drogomenpeketasun Zerbitzua (Anbulatorioa)	743936
Odol Emaileen elkarte.....	741190

GARRAIOAK

Eusko Trenbideak	740442
PESA (Eibar)	112131
Taxi Geltokia	740898

UDALA

Euskara Zerbitzua	744366
Kultura eta Kirol Zerbitzua.....	742158
Mendaroko Udala	756100
Ongizate zerbitzua	743736
Udaletxea	741050
Udaltzaingoa	741394

BESTELAKOAK

Caritas	740142
IMI	741196
Kontsumo Bulegoa (OMIC).....	743088
Liburutegia.....	743525
Musika Eskola.....	742145
Polikiroldegia.....	741361
Postetxea	741547

HIRUGARREN ADINA

San Lazaro Egoitza	740296
Zaharren Biltokia	740526

IKASTETXEAK

Herri eskola.....	74 08 79
I.M.H.....	74 41 32
Institutua	74 02 67
Ikastola.....	74 27 00
L.H.I.....	74 31 00
Pilar Ikastetxea.....	74 13 31

3 LAU HANKATAN

"Udara iritsi zaigu eta barrenak hustutzeko garaia da".

Alberto Ansuategi.

6 ERREPORTAIA: MAZZANTINI, ERROSARIO KALEKO TOREATZAILEA

Luis Mazzantini Egia, toreatzaile, politikari, aktore, musikazale eta gizatasun handiko pertsona izan zen.

8 ARRAZOIAK ERDIBANA: ZEIN DA ZURE IRITZIA ZEZENKETEI BURUZ?

Manu Rodriguez: "Eta gaur egun zer gertatuko litzaieke San Ferminei zezenketak kenduko bagenizkie?".

Jokin Agirrezabala: "Pentsatu nahi nuke jendeak ez dituela zezenketak maite animalia hauen sufrimendua eta heriotzagatik".

12 BERBETAN

Pedro Merino: "ZAPATARIA, BALIOGABETUTA DAGOEN LANBIDEA DA".

14 KIROLA:

GAIA: URAZPIKO IKASTAROKO IKASLEAK ITSASOAN.

ELKARRIZKETA: **Mireia Huidobro:** "PILOTA TXOKORA BIDALTZEA GUSTATZEN ZAIT".

17 KULTURA

LARUNBATEAN HASIKO DA ZINEA PLAZA HANDIAN

TXANDAK

FARMAZIAK:

10, larunbata: **ETXEBERRIA**

11, igandea: **ETXEBERRIA**

12, astelehena: **BIDASOLO**

13, asteartea: **BIDASOLO**

14, asteazkena: **BIDASOLO**

15, osteguna: **BIDASOLO**

16, ostirala: **BIDASOLO**

OKINDEGIAK:

11, igandea: **FOTERO**




HARRIGORRIGOIKO ERROTABERRITARRAK



LAU HANKATAN

Alberto Ansuategi



Uda

Hemen dago jada. Eguzkiak plaza nagusiko frontoiaren hormak astintzen ditu, agure batek elizaurreko zuhaitzen gerizpean begi nekatuz bizitzak aurrera nola egiten duen ikusten du. Haur batzuk bizikletaz txistu bizian zeharkatzen dituzte herriko kaleak, egun hauetako segundu bakoitza dastatu nahiean.

Udara iritsi zaigu eta barrenak hustutzeko garaia da. Hondartzan, mendian edo etxeko lasaitasunean etzan eta garunak nola *atrofiatzen* zaizkigun sentitzea baino ardura handiagorik gabe bizitzeko unea. Azal erreak, irailerako utzitako matematikak, estatusun ekonomikoak, hondartzarako treneko estatusun fisikoak, seme alaben gaupasek sortutako ardurak eta

bestelakoak ez dira nahiko izango loaldi kolektibo honetatik esnatzeko.

Bizitzaren iturritik ase arte edan beharra dugu, bizitzak berak ur tanta bakoitza izerditan ordainaraziko bait igu hurrengo udara iritsi aurretik. Bateriak berriro beharra dago. Egundak batzutan nagiak izateko eskubidea goza dezagun.

Dena den, etenaldiak ez du luze iraungo. Iraila iritsiko da, asmo berriak ernatuko dira eta oporraldia album batetan pilatutako argazki batzuk besterik ez da izango. Geure arazo eta arduren zama berriz ere leporatu beharko dugu eta, halere, udarako arropen itsas-usaiak ez du horren errez aldegingo.

- Argitaratzailea**
Elgoibarko Izarra
Kultur Elkartea
☎ 74 16 26
- Laguntzailea**
Elgoibarko Udala
- Zuzendaritza**
Itziar Agirregomezkorta
Alberto Agirreazaldegia
- Hizkuntza Arduraduna**
Anjel Ugarteburu
- Erredakzio kontseilua**
Iñaki Arrieta, Antton Bergara, Edurne Bilbao, Rosa Iriondo, Jose Inazio Sarasua
- Kazetaria**
Ainhoa Lodoso
- Maketatzailea**
Maite Rementeria
- Publizitatea**
Amaia Leiaristi
- Administrazioa**
Josune Fernandez
M. Angeles Ortuoste
- Kolaboratzaileak**
Myriam Aldazabal, Alberto Ansuategi, Isabel Ansola, Joxin Arregi, Belen Arrizabalaga, Bertso Eskola, Agur Miren Barandiaran, Hasier Etxeberria, Maite Iriondo, KOKOE, Imanol Larrañaga, Koldo Lizarralde, Aitor Lodoso, German Meabebasterretxea, Jasone Osoro, Diana Perez de Albeniz, Lorea Perez de Albeniz, Eduardo Sanz, Aitor Zabaleta
- Banaketa arduradunak**
Imanol Larrañaga
Inaxio Garmendia
- Helbidea**
Nafarroa enparantza 2
☎ 74 41 12
- Inprimategia**
Gertu koop. E.
(Zubillaga Oñati)
- Tirada**
3.000 ale
- Lege gordailua**
SS-1.038/92
- ISSN**
1133-021X

elgoi**BARREN**ek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



DEKORAZIOA

**PROIEKTUAK
ERREFORMAK
ALTZARIAK
OPARI GAIK**

Santa Ana 2 Tel: 74 35 09

Fotero

OKINDEGIÀ
OPILDEGIÀ

San Frantzisko, 4
Tel. 74 07 35

**Nanga Parbat-etik
BARREnera**

20-06-93

Kaixo lagunok:

Hemen gaude Nanga Parbat-eko kanpamendu basean berriz ere indarrak hartzen.

Kampamendu 1etik kanpamentu 2ra joateak zazpi egun eraman digu. Eta gaur arratsaldean bertan goruntz goaz berriro ere eta ez gara jeitsiko hirugarrena ipini arte. Beste sei egun gutxi gora behera.

Oso ondo gaude eta morala goian daukagu. Mendia oso gogorra da eta zaila egiten zaigu

gora egitea sokak, dendak, janaria eta gure ekipo guztiarekin baina pixkanaka pixkanaka metroak irabazten goaz.

Eguraldia, oso aldatkorra da eta ekaitz batzuek ere pasatu ditugu.

Elgoibar aldean ere gogor jarraituko duzue-lakoan, ikusi arte.

Aitor eta Pablo

Portau zarete

Banakan BARREni buruz zeozer idazteko gogua baina alde batetik nere edadeko jentia idazteko izaten ditxuen problemak eta bestetik

gerorako lagatziaren gaixotasunak, ez dizuet gaur arte ezer idatzi.

Ni euskaldun peto-petua izanik, ez naukan euskaraz irakurtzeko ohitxura haundirik. Irakurtzen naban apurra erderaz itxen naban.

Baina zorioneko egun batian BARREN astekarixa azaldu zan gure etxeko buzoian. Zeinena ote zan? Zertarako?

Elgoibarko Izarrak ateratzen zabala esan zidaten eta astero astero nik ezer egin gabe etxeko buzoian hartuko nabala; 'sekula holako txollorik!' pentsau naban nere artian.

25 numero etara di-

txuzue eta benetan zorionak eman behar dizkizuet. Ostiralero zain egoten naiz noiz ailegauko zeraten; erre-tratuak ikusi, titularrak ikusi (ez pentsau dana irakurtzerik egoten danik) eta edarki pasatzen ditxut pare bat ordu.

Bueno ezin dot geixao. Jakingo bazendue zer kostau jatan hau idazia!

Zorionak berriz ere eta mila esker ostiralero geurera etortzeagatik. Segi holaxe urte askuan!

M. C. L.

Uda honetan



TROPIKO





Aste honetako erretratua **Manolo Jauregik** lagatakoa da. Ez dakizuenontzat Elgoibarko jubilatuen presidentea da. Erretratua zaharregia ez bada ere (1980. urtean ateratakoa), bertan azaltzen direnak "zahar" xamarrak direnez balekotzat joko dugu.

Eskari zibilizatuei kasurik egiten ez zietenaz, Elgoibarko jubilatuen autobusak hartu eta Donostiara joan ziren bi aldiz pentsatu gabe.

Ikusten duzuen bezala konbokatoriak sekulako arrakasta izan zuen. Frontoiko joan etorriak eta jubilatuen egoitzako karta jokoak egun bategatik laga eta erreprezentazio ederra joan zen Gobernu Zibil parera.

Behin Gobernu Zibilaren parera iritsi zirenean, ez

zuten inolako beldurrik edo lotsarik eduki batuta eraman zuten pankarta zabaldu eta Gobernadorearen muturren parean jartzeko.

Elgoibarko jubilatuek ez omen zuten limosnarik nahi, Espainiako kontitutioak 50. artikuluan diona betetzea exijitzen zuten.

Zer esaten duen artikulua honek? "Todo ciudadano español tiene derecho a vivir dignamente". Itxura denez, "español" hauek jasotzen zuten pentsioa ez zen bizitza duin bat aurrera ateratzeko bestekoa. "Manifestazioa" hauteskunde garaian izan zenez, lortu omen zuten igorratxoren bat nahiz eta poltsikoetatik gainezka egiteko bestekoa ez izan.

SAN PEDRO TABERNA

Gure espezialitateak:

Olagarroa

Kazuelatxoak


Ribeiro ardoa

Pedro Muguruza etorbidea. Tel. 74 20 91

**PU
BLI
ZI
TA
TE
A**

74 41 12

Mazzantini, Errosario kaleko toreatzailea



Luis Mazzantini Egia, toreatzaile, politikari, aktore, musikazale eta gizatasun handiko pertsona izan zen. 1865. urteko urriaren 10ean jaio zen Errosario kaleko 7. zenbakiko lehenengo solairuan. Etxearen kanpoko aldean bere jaioteguna gogorarazten duen harrizko origarria dago.

Bere aita, Giuseppe Mazzantini, Garibaldiren gudaostean borrokatu ondoren, Italiatik etorri eta Bonifazia Egia elgoibartarrarekin ezkondu zen. Bost seme-alaba izan zituzten. Luis, semerik zaharrena izan zen Elgoibarren jaiota-

ko bakarra.

Luis Mazzantinik Elgoibarren egin zituen lehenengo ikasketak, 1863. urtean sendi osoa Bilbora joan zen arte. Bilbotik Italiara joan zen Luis, eta urte batzuren buruan Madrilera itzuli zen, Saboiako Amadeo I.a

erregearen zerbitzura lan egitera. Lan honek astia lagatzen zionez, 1874. urtean Arteetako Batxiller gradua lortu zuen.

Familiari laguntza ekonomikoa ematera beharturik, telegrafista lanean hasi zen Madril-Zaragoza-Alicante trenbidean. Hemen-dik gutxira, sendi behartsu batetako alaba zen Concepcion Lazarorekin ezkondu zen.

Hainbat lekutan lanean ibili ondoren, Santa Olallako geltokiko nagusi izendatu zuten. Bertan, aberas-teko nahia sortu zitzaion, gogo hau lortzeko bide bakarra ikusi zuelarik: toreatzaile egitea, alegia. Zezenketa gutxi batzutan ikusitakoa baino ez zekielarik, herriko jaietan eta zezenketa komikoaren aintzindari farregarri ziren neguko festatan ibili zen.

Entrepresak beraganako interesik ez zutelarik, 1881. urtean Frantziara joan zen. Gero eta arrakasta handiagoz, korrida askotan parte hartu zuen, Nimes, Bèziers, Cauterets eta Frantzia hegoaldeko beste plaza askotan; horrela ospe handia lortu zuelarik. Urte horren buruan, zezenketa askotarako kontratua eskuraturik, Montevideora joan zen.

Bere alternatibari zego-kion korrida, Sevillako *La*

Luis Mazzantiniren alternatibari zego-kion korrida Sevillako "La Maestranza" zezen-plazan izan zen 1884.eko apirilak 13an. Urrez brodatu-rik jantzi zuri bat zeraman eta aita-besoetakoa Salvador Sanchez "Frascu-elo" izan zen.

Maestranza zezen-plazan izan zen 1884.eko apirilak 13an. Urrez bordaturiko jantzi zuri bat zeraman eta aita-besoetako Salvador Sanchez "Frascuelo" izan zen. Bien artean, Adalid-en sei zezen estokeatu zituzten. Doktoradutzako zezena, "Costurero" zelakoa, erreginari eskaini zion eta "volapie" ikusgarri batez hil zuen.

Hilabete beranduago, Rafael Molina "Lagartijo" ren eskutik bere alternatiba baieztatu zuen, Sevillan bezain arrakasta izugarria lortuz.

Jadanik, lortua zuen berak nahi zuena: karteletako zezen-hiltzaile izatea. Oro har, maisutasun handiz, "volapie"az baliatzen zen zezenak hiltzeko. Hau dela eta, "volapie-aren erregea" delako gaitzizena ezarri zioten. Garaiko zezen-hiltzaileen artean ez zuen parekorik izan.

25 urtetan zehar, toreatzailerik ospetsuenetarikoa izan zen. Dirutza ederra pilatu zuen. Guerrita ezik, Mazzantini izan zen denbora eperik laburrenean gehien irabazi zuen toreatzailea. Lagartijo eta Frascuelok 15.000 erreal jasotzen zituzten bitartean, bera izan zen 1.000 duro ordaintzea lortu zuen lehendabizikoa.

Bere dotoretasun eta itxura bikainak errespetu handia sortu zuen toreatzaile eta zaletuengan. Garaiko komentaria batek honoko hau idatzi zuen: "*Mazzantini markako zapiak, korbatak, eskumakilak eta boki-*



1956.an Mazzantiniren jaiotegunaren oroigarria jarri zuten Errosario kaleko 7. zenbakian.

llak ere atera zituzten. Mazzantinik musika eta litaraturari buruz hitz egiten zuen, cuadroak erosi eta frak-a eta lebita jazten zituen. Kementsua, fina eta kultua zen, jokabide bikainekoa. Halaber, oso toreatzaile gutxik izan duten izena eta ospea lortu zituen".

Bere etxea ez zen toreatzaile bati zegokiona. Ez zegoen toreatzaileez ez zezenez ziharduten aldizkari eta egunkaririk. Hormetan ez zegoen ez zezenbururik, ez banderillarik, ez kartelik, ezta Sevillan alternatiba hartu zueneko kartela ere. Bere bulegoan ezarritako bi gauzak bakarrik adierazten zuten Mazzantini toreatzailea zela: Zuloagak Eibarren egindako estokea, Elgoibartarrek 1887. urtean oparitu ziotena, eta Frascuelo toreatzailearen erretratu bat.

Toreatzaile izateaz gain,

opera eta teatrozale handia izan zen. Honela, zenbaite-tan komediak antzestu zituen arrakasta handiz.

Emaztea 1905. urtean hil zitzaion; hau dela eta, kopeta moztu, eta zezenen mundutik erabat aldendu zen. Bere azken zezenketa Guatemalan izan zen urte horretako otsailaren 19an.

Politikan sartu, eta Moret-en partiduko zinegotzi izan zen Madrilgo Udaletxean; handik gutxira alkate ordezkoi izendatu zutelarik. Geroxeago Madrileko diputatu probintzial izan zen, baita Guadalajara eta Avilako Gobernadore Zibil ere.

Hirurogei eta bederatzirekin hil zen Madrilan, 1926.eko apirilaren 24an.

**Jose Luis Arana
Iñaki Mujika**
(Erredakzioan itzulia)

Bere bulegoan ezarritako bi gauzak bakarrik adierazten zuten Mazzantini toreatzailea zela: Zuloagak Eibarren egindako estokea, Elgoibartarrek 1887. urtean oparitu ziotena, eta Frascuelo toreatzailearen erretratu bat.

Zer iritzi daukazu zezenketei buruz?

Ni zezenketen alde nago gure kulturan finkatua dagoelako. Aintzinatik dator ohitura hori. Prehistorian, gizonak animalien kontra borrokatzen zuten harriak eta geziakin bakarrik, janaria lortzeko. Geroxeago, Greziarrek jaialdiak antolatzen zituzten, gaurko zezenketen antzekoak.



Eta gaur egun, zer gertatuko litzaioke San Fermini entzierroak kenduko bagenizkio? Eta entzierroak egiten dira zezenak plazara eramateko, gero arratsaldean toreatzeko. Eta San Ferminak diodanean, San Isidro, Apirileko Feria eta beste jai asko ere esan ditzaket. Exempulu bezala Euskal Herrian egiten den sokamuturra. Kendu iezaezu San Bartolome jaiei sokamuturra eta asko galduko luke.

Eta sokamuturra, zezenketak baino txarra goa da, zeren eta han zezena, nahiz eta ez hil, bere bizitza guztia egon behar da jendearen atzetik korrika egiten, eta zezenketa batetan, zezena eta toreroa daude,

bata bestearen aurka, arratsalde bakar bakarrean.

Horregatik ez dut uste plaza batetan zezena hiltzea hilketa bat denik. Biok berdintasunean daude. Gizonak daraman ezpata eta zezenak daukan adarrak eta indarrari aurka egiteko da. Horrela bakoitzaren posibilitateak berdinak dira.

Bukatzeko, zezena abere basati eta harro bat dela eta hiltzeko jaiola dela esango dut. Plaza batetan hiltzen ez bada, behi bat bezala hilko dute ganaderoek bere haragia aprobetxatzeko. Horrela, zezenketetan zezenak bere adorea ikustarazi dezake eta aukera bat dauka toreroaren aurka.

Manu Rodriguez



Zezen munduan iritzi bat ematea polemikan sartzea da, eta zezenketaz hitzegiten badugu, areagotu egiten da polemika hau.

Hala ere, badago jarrera intermediaoa daukan jendea, baina portzentaia nahiko txikia da. Ni ez nago ezbaikor portzentai txiki horretan sartuta eta ezin dut ukatu zezenak gustatzen zaizkidanik, asko animatzen baitute herriko jaiak, baina ezin dut gauza bera esan zezenketei buruz.

Entzierroetan, sokamuturretan eta enbolatuetan, gazteak dira kontzienteki harrapaketa arriskua hartzen dutena, eta zezenak ez du sufritzen, baina zezenketez hitzegiten dugunean, bestelakoaz ari gara.

Bere defendatzaile guztiek, gure tradizio bat dela esaten digute, baita odol, erlijio eta heriotzaren inguruan dagoen arte bat esan ere. Argumentu hauen aurka, bakarrik esan dezaket, arte hau ez zaidala gustatzen eta ezin dudala ulertu nola goza

dezakeen zibilizatuak diren eta bizitza maite duen jendeak, ikaraturik, hil zorian eta haserre dagoen zezenaren sufri-menduarekin. Beraz, pentsatu nahi nuke, jendeak ez dituela zezenketak maite animalia hauen sufrimendu eta heriotzarenengatik. Horregatik, suposatzea da badela beste zerbait zezenketa berezi egiten duena, dena den, pertsonalki nahiz eta saiatu nik ez dut hain "eder" egiten duen harresi hori eraztea lortu eta ez dut uste erazten erreza izan daitekeenik.

Jakin badakit, gai honen inguruan bi bando daudela eta alde bi horiek poztuko lituzkeen soluzio bat aurkitzea oso zaila dela. Halere, kome-nigarria litzateke zezenketen kopurua murriztea, bi taldetako guztien onerako.

Jokin Agirrezabala



Mandiola S.L. Egurrak

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA
BASOEN MOZKETA

Juan Mugerza 3. ☎ 74 12 56 - (mugikor.) 908 17 10 42



INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Rosario 34, 1 ezk. Elgoibar
Tel: 74 42 83 Fax: 74 42 53

ETA ZURE USTEZ?

Zer iritzi daukazu zezenketei buruz?



Joxean Eugi
41 urte, mekanikoa

Ikaragarri gustatzen zaizkit. Jaiak zezenik gabe ez dira berdinak. Euskal Herriaren kulturaren parte dira.




Jose Mari Larrañaga
32 urte, aktorea

Ez zaizkit zezenketak gustatzen. Kontra nago; animaliak horrela sufriaraztea ez zait ondo iruditzen eta hori bakarrik nahikoa da ezetz esateko.



Richard Aranzabal
23 urte, ikaslea

Zezen korriden aurka nago astakeria bat direlako. Zezena horrela hiltzeak ez du ez hanka ez bururik; zezenak asko sufritu behar duela iruditzen zait.



Amaia Etxeberria
27 urte, langabetua

Ez zaizkit gustatzen. Zezena era horretan hiltzea basatia eta krudela dela uste dut. Toreroak arriskatu egiten dira baina ez nago beraien alde.



Veronica Perelló
15 urte, ikaslea

Oso ondo dago, asko gustatzen zait. Bueno, pena ematen dit zezenak, baina oso emozionantea dela pentsatzen dut.



Rosario Valenciano
49 urte, etxeoandrea

Gustatzen zait. Baina piska bat odoltsuak dira. Zezena defenditu egiten dela diote, baina Portugalen bezala egingo balute, zezena hil gabe, hobeto legoke.

LANBROA

ORAIKO

EIBARBUS

- BIDAIA NAZIONALAK ETA NAZIOARTEKOAK
- ESKOLA ETA ENPRESETARA JOAN ETORRIAK
- TXANGOAK, ETAB.

Isasi, 20 behea
Tel: 70 16 20 - 11 17 33
Fax: 70 16 20 **EIBAR**

BUZONEOA / KOTXEAK / KARTELAK
POSTA KOMERTZIALA

**PUBLIZITATE BANAKETA
ETA PRODUKZIOA**

**PABLO
LOZANO MORA**

San Frantzisko, 56
☎ Ofizina 74 36 42
☎ Etxea 74 38 69

XABIER
ILEAPAINDEGIA

*Eskatu
eguna eta ordua*

San Bartolome 13, Tel. 74 19 97

PUB

elgoibar

Gurutze gorriko hiru gazte Algeciras-era joango dira

Honoko hauek Eduardo Arrillaga, Txomin Zabaleta eta Mikel Lizarralde Elgoibarko Gurutze Gorriko kideak dira. Uztailaren 21etik abuztuaren 5era bitartean Europako iparraldetik etxera oporretan doazen afrikarren pasua zaintzera joango dira Algeciras-era Gipuzkoako Gurutze Gorriarekin. Uda sasoiari afrikar asko pilatu ohi da Algeciras-en eta

egoeraren gogortasuna dela eta Estatu guztitik Gipuzkoako Gurutze Gorrikoak aukeratu dituzte, izan ere hobetoen prestatuta daudenak direlako. Hiru elgoibartar hauen lana, 24 edo 48 orduz ferry-a hartzeko zain dauden afrikarren artean gerta daitekeen edozein larrialdiri erantzuna ematea izango da.



Gutxitu fisikoen arazoei buruzko hitzaldia



Pasa den astearte arratsaldean Deba Beheko gutxitu fisikoak Kultur Etxean bildu ziren beraien arazoei buruz hitz egiteko (oztopo arkitektonikoak, garraiobideak...) eta ahal den neurrian beraien problematikari erantzun bat topatzeko. Halaber, FRATER, gutxitu fisikoen anaidiaren aurkezpen eskaintza egin zuten.

Bestetik, datorren igan-

dean, hilak 11, Gipuzkoako FRATER anaidiaren konbibentzia eguna ospatuko dute gure herrian. Goizeko 11,30etan, Gipuzkoako gutxituei harrera egingo zaie Eliza aurrean. 12etan meza ospatuko dute eta FRATER anaidiaren aurkezpena egingo dute. Ordubiak aldera bazkaria izango dute Kiroldegian eta arratsaldean festa-ekin jarraituko dute.

SAN PEDROKO JAIAK

Batzordeak gure jaietarako gonbitea luzatzen dizue. Jai alaiak eta denon gustokoak izango direlakoan, uztailak 9, 10 eta 11an auzora hurbildu zaitezten animatzen zaituztegu.



UZTAILAK 10, LARUNBATA

- 11,00: "Haritz" dantza taldeak alaitutako meza.
- 12,00: Salda dastaketa
- 12,15: *Faralai* sevillana taldea
- 15,00: Haurrentzako parkea
- 18,30: Txokolate jana.
- 19,00: Sokamuturra
- 20,30: *Travel* orkesta.
- 23,30: *Travel* ekin berbena.
- 01,00: Zezen mekaniko lehiaketa.
- 5,30: Txokolate jana.



Pedro Albizuri zazpi urtez gure herriko parrokoa izan ondoren datorren irailean edo urrian gure herria utzi eta Donostiara joango da. Ez da bera izango, ordea, herria utziko duen bakarra. Sabin Azkuek ere, orain arte Santa Klara komentuko apaiza izan denak, gure herria utziko du. Bi elizgizon hauei abuztuaren 22an egingo zaie despedida. Biek batera meza ospatuko dute eta ondoren bazkaria izango dute.



AZKUE

Erretratuan azaltzen den aharia San Pedro bailarakoek Siziliatik ekarri berria dute. Exibizio txiki bat egiteko ekarri omen zuten eta jakin dugunez inguruetakoa ahari guztiei astindu ederra eman die. Izan duen arrakasta aprobetxatuz, hemengoekin kruzatzeko erabiliko dute. Ahariaren ondoan, adarretik eusten, Juan Mari Irusta, Pontxera baserrikoa.



Lasarteko Txintxarri herri hamabostekaria osatzen duen lantaldea da honako hau. Lehen zenbakia urriaren 1ean ateratzeko asmoa dute eta hasi aurretik elgoiBARREn lan dinamika ezagutu nahian bisita egin zigten. Gure aldetik, zortea opa besterik ez, eta animo!!

Kultur gida eskuragai

Gipuzkoa mailako Kultur Gidaren lehen zenbakia kaleratu berri da eta nahi duenak Elgoibarko Kultur Etxean eskuratu ahal izango du. "Ikusgai" izeneko Kultur Gida Donostiako Kultur Udal Patronatoak argitaratzen du eta bertan Gipuzkoako herri bakoitzean kultura mailan burutzen diren ekintza guztien berri emango da.



PITXINTXU

Done Frantzisko, 27
 ☎ - Fax 74 32 06
 20870-ELGOIBAR (Gipuzkoa)

GURBIL *Jatetxea*

- Pintxoak - Eguneroko menua
 - Karta - Plater konbinatuak

Orain probatu etxean egindako PIZZAK

Isasi, 1 - Tel. 11 11 52 Eibar

Pedro Merino:

"Zapataria, baliogabetuta dagoen lanbidea da"

Pedro Merino, Santaellakoa, Cordobakoa dugu. 17 urte zituela guztia laga eta Elgoibarrera etorri zen. Eibarren zapata denda bat jarri,

ezkondu eta gaur egun zazpatak saldu baino konpondu egiten ditu. Bere frustraziorik handiena torero ez izana da.

-Noiz etorri zinen Elgoibarrera?

-1960. urteko irailaren 18an hain zuzen ere. Cordoban nengoela redada bat egon zen eta ni alderdi komunistaren partaide nintzenez gero, ihes egin nuen Frantziara. Bi hilabete izan nintzen Frantzia, baina guztientzako lanik ez zegoenez honantz etorri nintzen lagun baten aholkuz. Beraz, gaur arte. Hona etortzean Eibarren jarri nuen zapata denda bat; bezero batzuk egin nituen eta gabonetarako ezkondua nengoen.

-Komunista betirako?

-Bai, bai. Ez dut aldatuko.

-Zer nolako zerbitzuak eskaintzen dituzu?

-Ez ditut zapatak saltzen. Mota guztietako konponketak egiten ditut: poltsak, kremaierak, diruzorroak... Nire esku dagoen guztia egiten ahalegintzen naiz.

-Nondik datorkizu zapatak konpontzeko trebetasun hau?

-Zortzi urte nituela lanbide hau ikasten jarri ninduten eta hamalau urte nituela ofiziala nintzen. Era guztietako zapatak egiten nekien; gaur egun ostera, konponketak egiten ditut. Zapata berriak



"Gaztetako ametsik handiena toreatzaile izatea zen baina gaur egun gustora nago hemen"

egiteko beste pare bat pertsona beharko nituzke lanean eta askoz denbora gehiago.

Lehenago guztiek izaten genuen maisu bat. Ikasle bezala sartu eta lanerako prest irteten ginen. Gaur egun, ostera, jendeak ez ditu honelako lanbideak ikasten eta hemendik 10-15 urtera arazo handi baten aurrean egongo gara. Nire ustez, jende gehiago espezializatu beharko litzateke honelako lanbideetan.

-Zein da lanbide honen

alderik gogorrena?

-Baliogabetuta dagoen lanbide bat izatearena. Lan ugari egiten da eta fruitu gutxi batu. Soldata bat ateratzeko ordu asko sartu behar dira. Gogorrena, eskuz jostea da. Ez da batere erraza eta beraz, puntu bakoitzak bere denbora darama.

-Zure lanak, modak direla eta, aldaketa handiak izan al ditu hasi zinenetik?

-Ez, berdin funtzionatzen dugu. Guztiaren sekretua lanbidea ondo jakitea da.

Modak aldatzeaz gain garrantzitsuena norberak ikasitakoaz duen ezaguerara eta honen praktika litzateke.

-Krisiak ba al du zure lanean eraginik?

-Ez, lanbide honetan ez da igartzen. Krisi garaietan jendeak ez du zapata berriak sarritan erosteko dirurik, beraz, zaharrak konpontzen ditu. Krisialdia ez da batere txarra guretzat, kontrakoa dela esan genezake.

-Zein da betidanik gehien atsegin duzun lanbidea?

-Bueno, beharbada zezenen mundua. Gaztea nintzela zertxobait egin nuen baina hor gelditu zen. 17 urterekin birritan toreatu nuen nire herrian, gero alboko herrian eta ez askoz gehiago. Mundu honetan desamets asko jasaten dira eta horietako bat zezenen munduan ikusi nuen mafia izan zen. Ez dakit nola funtzionatuko duen gaur egun baina nire garaian sekulako arazoak zeuden. Gaztetako ametsik handiena toreatzaile izatea zen baina gaur egun gustora nago hemen.

Isabel Ansola

Alfon Gonzalez

Disc jokey-a



- **Zer suposatzen du asteburuetan lan egiteak?** - Orario normalen aurka doa baina ez zait ardura, lan hau atsegin dut eta gustora nago.
- **Eta ordutegiak?** - Nahiz eta berezia izan ohitzen bukatzen duzu.
- **Zer nahiago duzu, barra atzean egotea ala diska artean?** - Dudarik gabe diska artean.
- **Noiz jarri zenuen zure lehenengo diska?** - Duela urte asko, ez dut gogoratzen, 10-12 urte.
- **Musika hautatzeko orduan zerk du indar gehiago merkatuak ala jendearen gustoa?** - Batez ere jendearen gustoa; herriko jendea piska bat ezagutuz zer gusta daitekeen ala ez imajinatzen dugu.
- **Musikarekin jendearen animoa kontrola dezakezula uste duzu?** - Bai noski, musika oso psikologikoa da, asko jolastu behar da honekin.
- **Gauza asko ikusiko dira han goitik...** -Ez da ezer ikusten; buruak bakarrik ikusten dira.
- **Zer bilatzen du jendeak guaslean zure ustez?** - Dibertitzea eta larunbat gaueko jaia jarraitzea.
- **Lanetik kanpo gustatzen al zaizu diskotekara joatea?** -Lanarekin batera tokatzen zaidanez, batzutan joaten naiz, baina ez askotan.
- **Denbora librean zer duzu gustokoen?** - Mendira joatea, buelta bat ematea, musika entzutea...
- **Zein da larunbatero jartzen duzun edo jartzea gustatuko litzaizukeen kanta?** - Ez dakit, agian, *Cher*-en kanta asko gustatzen zait.
- **Udarako zer asmo?** - Kanpora noa, Greziara.

Belen Arrizabalaga

BERTSOTAN

ZEZENKETAK: BAI ALA EZ?

Doinua: Zamora sugintza

Zezenketak bai edo ez horra gaurko dilema pentsatzea onena hemen ba al da korridarik ikusi ez duena? (bis)
Toreroei egin behar gaurko hontan omena balorea dutena baina denei begiratu dugu aproposena (bis)

Ferietan ta jaietan zezenketekin zita ta pentsatzen hasita Lorca berak ere zeukan gauz kultotzat jarrita (bis) baina kriston morlakoa sufritzen ikusita nunbaiten idatzita ez inortxo torturatu horrek buelta badik ta. (bis)

Arnaitz Gorriti



OIERKI ASZENSOREAK

Urrutira deitu gabe bertakook eta segiduan konponduko dizugu aszensorea

(943) 11 35 15 ● ABERIAK (943) 11 35 15
Bista Eder, 11 (sotanoa) ● 20600 EIBAR



CITRÖEN
Santa Clara Automoción, S..L
Zerbitzu Ofiziala.

Santa Clara 40 ELGOIBAR
Telf.: 74 00 93 - 74 19 50

Espainiako atletismo txapelketa

Astebukaera honetan zehar Espainiako atletismo txapelketa jokatu da Anoetako atletismo pistetan. Carmen Perea eta Alberto Revuelta, Ego-Tokiko korrilariak, Espainiako txapelketan izango dira. Carmen 800 metrotako lasterketan arituko da eta Alberto, berriz, 10.000 metrotako lasterketan. Alberto Revueltak lehen postua lortu beharko du 10.000 metrotako lasterketan, hilaren bukaeran Donostian izango den Europako Junior txapelketan Espainiako selekzioarekin batera parte hartu nahi badu behintzat.

Mendi travesia hurrengo astebukaerarako

Morkaiko Mendizale elkarteak Pirinioetara travesia antolatu du datorren hilak 17 eta 18rako. Mendizaleek Belagoako aterpetxean pasako dute gaua eta Orhy eta Auñamendiko gailurrak egingo dituzte. Irteera hilak 17an larunbatean izango da goizaldeko 5,30etan Foruen Plazatik. Izena emateko Morkaiko Mendizale Elkarteak Errosario 17an duen lokalera jo daiteke. Bazkideek 4.000 pezeta ordaindu beharko dituzte eta gainontzekoek 4.500 pezeta.



Mireia Huidobro:

"Pilota txokora bidaltzea gustatzen zait"

-Nondik datorkizu esku pilotarako zaletasuna? Aspalditik daukat zaletasuna. Ez dakit, ez dago arrazoirik.

-Noiztik zabilta pilotan? Orain dela gutxi hasi naiz "Lagunak" txapelketan. Maiatzean uste dot hasi nintzala. Ordurarte Ikastolan jokatzen naban pelotan, entrenamenduetan. Errekreuan ere jokatzen naban eta joku eskolarretan ere bai.

-Gustora al zabilta txapelketan? Bai. Plaza handixan jokatu dogu batzutan eta Ikastolan ere bai.

-Zenbat partidu jokatu dituzu? Hiru edo lau.

-Eta irabazi? Bat edo bi. Ez dakit. Bi uste dot.

-Zer esaten dizute etxekoek eta lagunak? Ona naizela.

-Gogor entrenatzen duzu? Bai. Astearte eta ostegunetan. Entrenadoreak ezkerrekin hobeto eman behar diodala esaten dit. Eskumakin ezkerrekin baino hobea naiz.

-Teknika ondo ikasia daukazu? Bai. Partiduetan gehien gustatzen zaidana pilota txokora bialtzea da.

-Elgoibarren zure



adineko neska gehiago al dabil pilotan? Bai, beste bi neska. Ebelin eta Olatz. Olatz bosgarren mailakua da eta Ebelin nere edadekoa. Batzutan mutilen aurka jokatzen degu eta beste batzutan Ebelinen aurka jokatzen det.

-Aurrean ala atzean jokatzea gustatzen zaizu? Atzean. Atzetik hobeto ematen diot pelotari.

-Eskuetan minik hartzen al dozu? Ez, pelotak bigunak direlako. Oraindik ez degu eskuetan ezer jartzen.

-Pilotan luze jarraitzeko asmorik? Bai. Aspertzen naizen arte. Plazan bukatzen dotenian deskantsua hartuko det, eta gero berriro hasiko naiz.

● Adina: 9 urte.

- Gerrikoaren kolorea? Gorrixa.
- Pelotari faboritorik? Ez daukat
- Frontoi irekia ala estalia? Irekia.
- Pilota bizia ala motela? Bizixa.

Lizzy Boutique

GAZTEENTZAKO MODA

Errosario, 25 - Telef. 74 23 02

karkizano

San Franzisko 12-14, Tel. 74 05 49

Arrieta

modak

San Bartolome 18
 ☎ 74 08 49

Itsasora irteera egin dute urazpiko ikastarokoek



Urbizi urazpiko taldeak antolatutako bigarren ikastaroa bukatu berri da eta kurtsu amaiera gisa, Getariako hondartzan igerilekuan ikasitakoa praktikan jarri zuten. Ikastaroan, presioa, deskonpresioa, sakonera, botilak eta txalekoa nola jarri, ihesi libre eta ab. ikasi dituzte. Ikastaroaren iraupena bi astetako izan da eta bukaeran, azterketa teorikoa eta azterketa praktikoa itsasoan, izan dute.

Txarrena, esan digutenez, urarekin lehen kontaktua izan da. Urduritasunaz gain, agobio sentazioa handia da urazpian sartzean ez baita ezertxo ere ikusten. Argazkian daudenetatik, 9 elgoibartarrak dira eta 3, berriz, kanpotarrak.

Ikastaroa pertsona helduei zuzendua egon da eta ikastaroa burututa, bigarren mailako buzeatzaile deportibo titulua eskuratu dute.


Partaidetza handia Lagunak pilota txapelketan

Asteazken arratsaldean *Lagunak* esku-pilota txapelketaren finalak jokatu ziren Foruen Plazan.

Benjamin mailako partiduan, Iker Martinezek Igor Casadoren aurkako partidua irabazi zuen 18 eta 12ko emaitzaz. Sailkapenean hirugarrena Axier Elustondo gelditu da eta laugarrena Koldo Soraluze. Alebinitan, Manu Ibarluzeak finala irabazi zuen Iñigo Gurrutxagaren aurka.

Hirugarrena, Josu Perea eta laugarrena Iban Rojo izan dira. Azkenik, infantiletan, Jon Garate txapel-dun gelditu zen, Karmel Leon bigarren, Joseba Otaegi hirugarren eta, Josu Zabala laugarren.

Txapelketa duela bi hilabete pasatxo hasi zen eta guztira 200 partidutik gora jokatu dira. *Lagunak* txapelketan alebin, benjamin eta infantil kategorietako dozenaka hurrek hartu du parte.



*Eskulanean
saiatzzen gara*

*Pastelak
Tartak
Izozkiak
Bonboiak*

Morramendiarrak
ELGOIBAR

GOZOTEGIA

San Bartolome 34-35 Tel: 74 03 45

INTERIORES

- SUKALDEAK ETA BAINU ALTZARIAK
- ATE TOLESGARRIAK
- BARRUKO ARMAIRUAK
- DEKORAZIO GAIK

Tel: 74 40 55 - 74 40 19.
Errosario 15 Behea.

PEPE

taberna

P. Muguruza 38. ☎ 74 01 37

FADEK

ILEAPAINDEGIAK

AFARI BAT ZOZKETATUKO DU



SOLARIUMa

zerbitzu osoa:

Dutxa, gela, hidratantea, toalla,
musika, aire girotua...

9 + 1 = 6.300 pta.

ILEAPAINDEGI MIXTOA

Orrazkera bereziak
eta makilaiak

Moztu zati hau, ekarri **FADEK**era eta **GABI**nean

birentzako **afari bat** irabazteko aukera izango duzu.

Izena.....Abizenak.....

Tel.:.....


Zozketa uztailak 20an izango da FADEK ileapaindegian. ANIMA zaitetz !!!

Larunbatean hasiko da zinea Plaza handian

Larunbat honetan, hilak 10, udako zine sasoari hasiera emango dio Ongarri Zine-Klubak "El Ultimo Mohicano" pelikularekin. Pelikula guztiak Plaza handian pantailaratuko dira uztaila eta abuztuko eta agian iraileko larunbat eta igandeetan gaueko hamaikak laurden gutxitan. Ongarrik iaz eta aurten produzitutako zortzi pelikula ezagun emango ditu uztailleko astebukaeretan. Ongarri zine-klubak urtero antolatzen du udako zine emanaldia eta Udala eta Foru Aldundiaren laguntza jaso du. Uztaillean zehar proiektatuko diren pelikulak:

- 10 larunbata: "El Ultimo Mohicano"
- 11 igandea: "La Sombra del lobo"
- 17 larunbata: "1492. La conquista del paraiso"
- 18 igandea: "Un horizonte muy lejano"
- 24 larunbata: "Le llaman Bodhi"
- 25 igandea: "La fuerza del viento"
- 30 larunbata: "Cool World"
- 31 igandea: "Heroe por accidente"

Oraingoaz, Ongarrik zine-klubak uztailleko pelikula blokea soilik prestatu du, baina abuztuko astebukaeratan zine emanaldia egongo da eta irailean seguraski ere bai.



➤ "El Ultimo Mohicano" uztailleko lehen filma izango da.

Kokoe komiki taldeko partaideen erakusketa

Elgoibarko KOKOE komiki elkarteko partaideen lanak Kultur Etxean erakusgai daude eta hala egongo dira hilaren 25a arte. Bertan, taldeko komikigileek urtean zehar egindako lanak ikusi ahal izango dira. Honoko elgoibartar hauek erakutsiko dituzte beraien lanak Kultur Etxean: Iban Barretxeak, Iñaki Guedek, Alberto Garziak, Antxon Alvarezek, Iñaki Raigosok, Jesus Tadeok, Ruben Arozenak, Joseba Otaegik eta Mikel Cornejok.

Honezaz gain, hilak 17, larunbatean, eguerdiko hamabietan, zuzeneko komiki erakusketa egingo dute KOKOEkoek.



➤ KOKOE komiki elkartekoak, beraiak egindako super heroien marrazkiekin.

10 Larunbata

19,00-21,00 KOKOEREN
ERAKUSKETA

Tokia: Kultur Etxea
Gaia: Komikiak
Azken eguna: Uztailak 25

22,45 ZINEA

"El Ultimo Mohicano" (USA 1992)
Tokia: Plaza handia
Zuzendaria: M. Mann
Aktoreak: Daniel Day-Lewis eta
M. Stone.

ZINEA

"El Ultimo Mohicano"

1.757. urtean, New Yorkeko estatuan, armada ingelesa eta frantsesa, indiar amerikarren lurraldea eskuratzearen borrokan ari dira. Berton, elkarrekin bizi dira ingeles kolonoak eta mohikano tribua. Mohikanoen ohituren barruan hazitako kolonoen seme batek ingeles ofizial baten alaba salbatuko du eta, berataz maiteminduko da. Hori dela eta, arrisku egoerak bizi behar izango ditu mutilak.

ZINEA

11 Igandea

22,45 ZINEA

"La sombra del lobo"
Tokia: Plaza handia
Zuzendaria: J. Dorfman
Aktoreak: L.D. Philipis, J. Tilly,
T. Mifune eta D.
Sutherland.

15 Osteguna

19,30 HBko ASANBLADA

Gaia: Elgoibarko gaztedia
Tokia: Kimetz Elkarte

ZINEA

"La sombra del lobo"

Eskimal gazte batek bizi ahal izateko pasa behar dituen gora-beherak kontatzen ditu pelikulak. *Agaguk, Kroomak* "jefe"aren seme harro eta iraultzailea da. Berak *Inuit* komunitatearen ohitura eta tradizioetan eskua sartze-ara ausartzen da. Trama, bitan banatzen da: batetik, protagonistaren bidaia arriskutsua eta, bestetik, *Inuit* tribuaren "jefe"ak sortarazten duen gizon zuriarekin gatazka.

ZINEA

SAN PEDRO
KALEKO JAIK

UZTAILAK 9, OSTIRALA

18,30: Jaien hasiera
19,00: Bailarako Mountain bike lehiaketa
20,30: *Grand Prix* orkesta
23,00: *Grand Prix* orkesta

UZTAILAK 10, LARUNBATA

11,00: "Las Anduriñas" tunak alaitutako meza.
12,00: Salda dastaketa
12,15: *Faralai* sevillana taldea
15,00: Haurrentzat parkea
18,30: Txokolate jana.
19,00: Sokamuturra
20,30: Travel orketa.
23,30: Travel ekin berbena.
01,00: Zezen mekaniko lehiaketa.
5,30: Txokolate jana.

UZTAILAK 11, IGANDEA

11,30: Ezkongai-Ezkonduen arteko futbito partidua.
12,30: Aizkolariak
13,30: Sardina jana "Os Galaicos" taldeak alaitua.
17,30: Sokamuturra
19,00: *Travel* orkesta
22,00: *Travelekin* berbena
24,00: Txafliaguak eta jaien bukaera.

Artegi LEHIAKETA

UZTAILEKO GALDERA: Elgoibarren ezagutu ditugun azken bi uholdeak abuztuan eta uztailean izan ziren, hain zuzen ere. Ba al dakizu zein urtetan?.....eta

IZEN-ABIZENAK.....

HELBIDEA..... TEL.....

Uztailaren 20an **SAMSUNG** telebista bat zozketatuko dugu zuzen erantzuten duzuenon artean.
(Anima zaitetze eta ekarri erantzuna BARREnera. Nafarroa enparantza 2.)

Etxebizitzak

Pisua alokatzen dut Santa Ana kaleko 7 zenbakian.
Deitu 74 01 93 - 74 26 89 Belen.

Pisua salgai Deban (Lersundi kalea). 118m², kanpokaldera eta 3. pisua. Distribuitu gabe. Laguntzak jaso dezaketenezat aproposa. **Tel: 74 29 05**

Berritutako buhardila bat salgai. San Inazio 5
74 35 09 - 74 31 66

Lana

Etxeko lanak, haurrak edo pertsona nagusiak zaindu, kamarera lanak... egiteko prest nago. Euskeraz bada-
kit.
Ainhoa 74 16 89

Udan klase partikularrak emateko prest nago OHOKo hurrei. Magisteritza titulua eta ingenieritza ikasketak ditut.
74 28 53 Alazne.

Iurgintza eta berogailu lanak egiten ditut etxebizitzetan. Prezio merkeak.
74 41 94. Sanchez.

Programatzaileak, partikular, enpresa eta komertzio-entzako aplikazio informatikoak egiten ditu. Proiektua aztertzeko prest gaude inolako kosturik gabe.
74 25 35

COU, EFP eta Batxiller Tekniko eta Moduloetako ikasleei dibujo lineal-industrialeko klaseak ematen dizkiet.
Iñaki: 74 34 01 - 74 17 60

Magisteritza eta administrari tituludun irakasleok, O.H.O., L.H-1 eta euskarako klase partikularrak ematen ditugu.
Deitu 74 04 13 telefonora.

Salerosketak

Ilara bateko patinak salgai. Sky tankerako botak dauzka. 36-37 zenbakikoak. Ikasteko aproposa. **Deitu 74 02 09 zenbakira. Ainhoa**

Opel Midi, 4x4 SS AL bat saltzen dut. Ohea egiten da. **Deitu 74 28 56 gaeuz. Gaizka.**

Ezkontzeko soinekoa salgai. Buruko apaingarria eta kankanarekin. Luzea, salmoi kolorekoa, manga motza. Neskaren neurriak: luzera: 165 zm, bularra: 85 zm, gerria 68 zm. Erdi prezioan: 80.000 pta. Ikusi edo probatu nahi izanez gero, deitu **76 17 81 edo 945-24 32 55 tel.etara.**

"Catusa" 4,20 m. tako karabana bat salgai dut. Ondo zainduta.
74 12 95 Pello.

65 litroko Aldus Everest motxila eta piolet bat saltzen dut.
74 25 63 Josu

Opel Corsa Cyti, BI-AK saltzen dut. Hobekuntzekin. Deitu lan orduetan.
94-6201918 ra (Gorka).

Arregitorren garajea saltzen dut. Prezio interesgarria.
Tel: 74 27 39

Gimnasia egiteko tresna saltzen dut. Muskuloak eta hankak indartzeko oso egokia. Prezioa negoziatzeko.
Aitor: 74 22 74 Egun osoz.

Seat Panda bat saldu nahi nuke. SS 36 38 N
74 14 80 Javi


Garaje bat saldu edo alokatu genuke. San Roken (pista beltzean).
74 08 79 Julian edo Maria Jesus

Garaje bat saltzen dut Santa Ana kaleko 2. portaren alboan. Harremanetarako deitu, **74 06 56 edo 74 42 47** telefonoetara.

Bigarren eskuko aldizkariak, liburuak eta bildumak erosiko nituzke. Egoera onean. **Jose Mari. Tel: 74 21 35-74 22 10**

FORD FIESTA zuri bat saltzen dut, BI-AB. Prezio merkea.
Tel: 74 28 77. Jose

XAHEN BIDAIAK



TXEKIAR ERREPUBLIKA-ESLOBAKIA-BUDAPEST
93-8-1 / 93-8-1575.000 pta.
KORSIKA
93-8-16 / 93-8-31 79.000 pta.
MAROKO (Atlas + desertua)
93-9-1 / 93-9-1574.000 pta.
93-8-1 / 93-8-1574.000 pta.

* 17 lagunentzako autokarabarekin goaz, litera, sukalde eta guzti.
* Bizikleta eta piraguak eramango ditugu, mendiko travesia bat ere egingo dugu oinez.
* Informazio gehiago: 74 02 99 bulego orduetan. (94) 613 40 75 gauean (Adrian).



IRAKASLE ESKOLA
E s k o r i a t z a
G i p u z k o a

Magisterio Eskola honek zera jakinarazten du:

**1993-94 ikasturterako aurreinkripzio-
epea zabalik dagoela.**

Espezialitateak:

- Haur -Eskola
- Euskal Filologia
- Ingeles Filologia

Informazioa

Irakasle Eskola. Tfnoa: (943) 71 41 57



“Europearrek dutena
europear preziotan lortzen dudanean
sinestuko dut European.”

 VOLKSWAGEN



Golf Europa, Europear preziotan.

Autos Eibar, S.A.



Otaola hiribidea, 17. Tel. 11 36 42 / 11 00 90 EIBAR